

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a

643. zenbakia

GIZARTEA/ Debagoieneko eta Debabarreneko odol emaileen festa izango da urriaren 23an

Bergarako 46 odol emaile omenduko dituzte aurten

EDU MENDIBIL

Debagoieneko eta Debabarrenako odol emaileek urteko ospakizuna egingo dute urriaren 23an Eibarren, Arraten. Bergarako 46 odol emaile sarituko dituzte, tartean sari berezia jasoko duen Kontxi Larrañaga.

Ohikoa denez, herri askotako odol emaile beteranoak omenduko dituzte urriaren 23ko jaietan. Hain zuzen ere, 25, 40 eta 50 odol ateraldi egin dituzten gizon eta emakumeek diplomak eta dominak jasoko dituzte egun horretan. Bergarako kasuan, dagoe-


neko 25 odol ateraldi egin dituztenak 34 gizon eta emakume dira; era berean, 40 odol ateraldi egin dituzten sei emakumek jasoko dute saria eta 50 odol ateraldira iritsitako beste bost gizonak. Kontxi Larrañagari, berriz, aipamen berezia egingo diote, 64 ateraldira iristeagatik.

Esan bezala, odol emaileen festa urriaren 23an ospatuko da Eibarren. Eguerdiko 12:30ean Meza Nagusia izango da Arrateko santutegian eta ondoren herri bazkaria egingo dute Kantabria jatetxean. Izenematea (27 euro) Zabala farmazian edo San Antonioko Agirrebeñan egin daiteke. Edozein argibidetarako Bergara-

ko Odol Emaileen Elkartera (943 76 22 36 telefonoa) jo dezakete interesatuek.

ZIFRAK HOBETUZ

Joan zen urtean odol ateraldi gehiago lortzeko kanpaina abian jarri zuten Gipuzkoan. Bergarako Odol Emaileen Elkartereko arduradunak pozik daude jasotako erantzunarekin. Urtero, batez beste, 1.400 ateraldi inguru egingo dituzte Bergaran. Hala ere, odola emateak duen garrantziaz ohartarazi nahi dute jendea. Hurrengo odol ateratzek urriaren 26an eta azaroaren 9an egingo dituzte Bergaran, Seminarioan, ohiko ordutegian.



ARTXIBOA

Urtero, batez beste, 1.400 ateraldi inguru egingo dituzte Bergaran.



'Aupa Etxebeste!' Udal Pilotalekuan ikusi ahal izango da

Aupa Etxebeste! filma ikusteko aukera izango da urriaren 28an eta 29an, Udal Pilotalekuan. Bi egunotan bi emanaldi egingo dira, 20:00etan eta 22:30ean, eta sarrerak bi eurotan jarriko dira salgai. Asier Altuna *Kixi* eta Telmo Esnalen filmak harrera beroa jaso du Zinemaldian estreinatutako zenetik. Bergaran filmatutakoa denez, Bergarara ekarri nahi izan du Udalak.

LABUR

Lehen hezkuntzako gurasoei zuzendutako bilerak hurrengo astean Aranzadi Ikastolan

Lehen hezkuntzako gurasoendako bilerak izango dira hurrengo astean Aranzadin: urriaren 17an 5. mailakoak, urriaren 18an 2. mailakoak, 19an 4. mailakoak eta urriaren 20an 6. mailako gurasoena. Bilerak Seminarioko eraikinean izango dira, 18:30ean.

Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte dago zabalik. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek ondorengo egunetan jasoko dute ordainketa egiteko agiria. Agiri hori urriaren 31 baino lehen jasotzen ez baduzue, kontu-hartzaileko bulegotik (943 77 91 64) pasa zaitezke.

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

BEHEKO

TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

HEZKUNTZA/ Urtarrilean jarri zen ikastaroa abian eta ikasleek diploma eskuratu zuten urriaren 1ean

Adinekoen etxeko laguntzaileen lehen promozioko ikasleek diploma jaso dute

E.M.

Adineko pertsonen etxeko laguntzaileen lehen promozioko ikasleek diploma eskuratu berri dute UNED ikastetxean. Esperientziaren emaitzak ikusita, datorren urteko urtarrilean bigarren promozioko abian jarriko dute.

KutxaZabal Deba-UNED ikastetxeak abian jarritako ikastaroa esperientzia aitzindaria izan da. Hain zuzen ere, Giza Laguntza-Formazio Planaren barruan kokatzen da ikastaroa. 230 orduko ikastaroa izan da eta eskolak egubakoitz arratsaldeetan eta zapatu goizetan izan dituzte ikasleek. Urtarrilean jarri zen ikastaroa abian eta lehen promozioko ikasleek diploma eskuratu zuten joan den urriaren 1ean, Bergarako UNED ikastetxean egindako ekitaldian.

TEORIA ETA PRAKTIKA

Lehen promozioko ikasleek teoria eta praktika uztartzeko aukera izan dute. Etxeko zerbitzuen alorrean lanean dabiren Goiz Argi enpresan eta Arrasateko San Juan de Dios ospitalean praktikak egiteko aukera izan dute ikasleek. KutxaZabal Deba-UNEDek kolaborazio hitzarmena sinatu du biekin.

Adineko pertsonen kopurua gero eta handiago da gaur egun eta kasu askotan erresidentzia



Argazkian, etxeko laguntzaile diploma eskuratu duten lehen promozioko ikasleak.

publikoek ezin diete eskaera guztiei aurre egin. Gauzak horrela, etxeko laguntzaileen premia gero eta nabariagoa da. Besteak beste, etxeko laguntzaile izateko interesa dutenei formazioa eskaintzea eta giza laguntzaileen

funtzioa duintzea izan dira helburuak. Horrelako ikastaroen bitartez, nolabaiteko mendekotasuna duten adineko pertsonen etxean kalitatezko laguntza eskaintzea lortu nahi da.

Antolatzaileen esanetan espe-

rientzia oso positiboa izan da eta KutxaZabal Deba-UNEDek etxeko laguntzaile diploma eskuratzeko bigarren promozioko abian urtarrilean.

Matrikula egiteko epea azaroan zabalduko dute.

LABUR

Domekan Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Domekan, urriaren 16an, Altsasun ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du Jardunek. Bergararik 08:30ean aterako da autobusa. Argibideak 943 76 36 61 telefonon.

1947an jaiotako bergararrak, Remellurira

1947ko jaiotako bergararrak Bastidara irteera egingo dute azaroaren 5ean. Irteera 10:30ean egingo dute eta Bastidan ibili ondoren, hango Remelluri upelategian bazkalduko dute.

Izenematea (47 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke. Horretarako azken eguna urriaren 29a izango da.

'Gomendatzen dizut' lehiaketa urriaren 26ra arte zabalik

Gazte Zerbitzuak Gomendatzen dizut lehiaketaren 3. ekitaldia deitu du. Aisialdi edo oporraldian ezagututako lekuen berri jasotzea da lehiaketaren helburua, informazioa erabilgarria izan dadin beste bidaiarientzat. Gomendioak jasotzeko azken eguna urriaren 26a izango da. Argibideak 943 77 91 57 zenbakian.


Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



DIODO LASERRA



Gorputz osoko laser depilazioa

- Hiru hilabetean behin
- Tratamendua bukatzeko lau edo sei saio
- Medikua egina

GALDETU KONPROMISORIK GABE

Barrenkale,35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA



smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 + BEZA/Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

7505
zenbakira



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Bergaratu zure poltsikoko telefonora bateragarratasunaren bidez erabiltzeko. GPRS sistema erabiltzeko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duen da eta klase bakoitza erabiltzeko behar duzu. Kasu guztietan ere, GPRS sistemaren alda ematea duen da. * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonoa. * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 228-ra.

2. **BALDINTZAK:** Edozein eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatu izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duen da eta klase bakoitza erabiltzeko behar duzu. Kasu guztietan ere, GPRS sistemaren alda ematea duen da. * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonoa. * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 228-ra.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duen da. * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonoa. * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 228-ra.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure mezuak egonkortzeko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duen da. * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonoa. * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 228-ra.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abestia) i KODEA

Himnoak
Eibar i EIBAR
Athletic Club i BILBAO
Osasuna i OSASUNA
Real i REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) i AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) i AIZKO
Amore amore (Kortatu) i AMORE
Bi Minutuero (Hertzainak) i BIMINU
Dub manifest (Fermín Muguruza) i DUB
Egunero (Hertzainak) i EGUNERO
Ei Sukarra (Ei Sukarra) i SUKAR
Etsi dizen miera, nosotro amen (La Polla) i ELLOS
Enamorado de la muerte (Ei) i ENAMO
Etorkizuna (Etsaiak) i ETORKI
Ezer ez da betiko (Kortatu) i EZER
Gora Herria (Naga Gormak) i GORA

Hator Bel-Air (Bide Ertean) i BELAIR
Haizea (Kortatu) i HAIZEA
Hegal egiten (Kortatu) i HEGAL
Ikusi (Ondarri) i IKUSI
Ilargia (Kortatu) i ILAGIA
Inperuen ate joka (Gorbil) i INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertean) i JOKIN
Kaixo (Kortatu) i KAIXO
Lau Teilat (Itzi) i ITOIZLAU
Laztana (Laztan) i LAZTA
Lotuta egon arren (Kortatu) i LOTUTA
Loretxoa (Kortatu) i LORE
Marea Gora (Itzi) i MAREA
Musturrek sartunde (Gorbil) i MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) i NICA
No time for love (Hertzainak) i NOTIME
Salve (La Polla) i SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) i SARRI

Sorginen leizean (Etsaiak) i SORGIN
Txabro (Zarama) i TXATXOI
Txus (La Polla) i TXUS
Trikixita
Bexamela ta pastela (Maika ta Iñaki) i BEXAMELA
Hik lan eta nik jai (Iñaki) i HIK
Itsas ontzi baten (Kortatu) i ITSAS
Kupela (Kortatu) i KUPELA
Mila galdera (Maiz) i MILA
Nirekin (Gozategi) i GOZATEGI
Ny Hirahira (Kortatu) i HIRAHIRA
Txanpon baten truke (Maiz) i TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sordana) i SOROTAN
Bai euskarari (Pantxo) i BAI
Bakezaleak (Ane) i BAKE
Bizkaia Maite (Berio) i BIZKAIA

Eperrak (Ane) i EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Kortatu) i EUSKAL
Euskaldun berraren belardia (Kortatu) i EUSKALDUN
Ez da posible (Kortatu) i POSIBLE
Furra Furra (Kortatu) i FURRA
Galizara noa (Kortatu) i GALIZARA
Gemikako Arbola (Kortatu) i GERNIKAI
Haika Muti (Mikel Laboa) i HAIKA
Izarren hautsa (Kortatu) i IZARREN
Lepon hartu ta (Pantxo) i LEPOAN
Marinelaren zai (Sordana) i MARINE
Nere herriko neska maite (Kortatu) i NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Laboa) i NON
Oii Ama Euskal Herria (Kortatu) i OIAMA
Tira (Kortatu) i TIRA
Txabamatainaburu (Mikel Laboa) i TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) i TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Kortatu) i ZAINDU

Herrikoia
Bagare i BAGARE
Desde Santurce a Bilbao i DESDE
Ikusi Mendizaleak i MENDI
Pintxo-pintxo i PINTXO
San Simon eta San Judas i SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego i ARTILLERO
Marijaia (Kortatu) i JAJIA
San Fermín i FERMIN
San Martzialak alardea i SAN MARTZIAL
SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena i KODEA
Irmitzia i IRRINTZI
Txalaparta i TXALA

JOKOAK (4 sms)

BOINK
NEUTRON2
RALLYDELUXE
FUTVOLEY
NOR
SOBALL
Eskuratzeko modua:
JOKUA: SOINUJ+hutsunea+KODEA
7505 zenbakira
Prezioa: 3,6+BEZA

ERRETIRATUAK/ Aurtengo kartela aurkeztuko dute astelehenean eta martitzenean Patxi Meaberen hitzaldia izango da Miguel Altunako aretoan

'Bakea amets' lelopean, erretiratuen Kultur Hamabostaldia hasiko da astelehenean

E.M.


Antzuolako eta Bergarako erretiratuek antolatutako Kultur Hamabostaldia abian jarriko da astelehenean, urriaren 17an. Azaroaren 5era bitartean hainbat ekitaldi antolatu dituzte. *Bakea amets* lelopean Kultur Hamabostaldiaren 9. ekitaldia da aurtengoa.

Erretiratuek programa zabala prestatu dute datorren azaroaren 5era bitartean. Ekitaldiei hasiera emateko astelehenean, hilaren 17an, Hamabostaldia iragartzeko kartelaren aurkezpena egingo dute erretiratuen egoitzan, Boni Laskurain kalean, 18:00etan. Pintura ikastaroan ari diren erretiratuek egin dute aurtengo kartela.

PATXI MEABE HIZLARI MARTITZENEAN

Bestalde, *Justicia y Paz* aldizkari zuzendaria den Patxi Meabek hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 18an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. *Normalizazioa eta bakegintza Euskal Herrian* da Meabek aurkeztutako gaia.

Eguaztenean, berriz, jai-ekitaldi kulturala izango da erreti-



Kultur Hamabostaldiaren barruan Patxi Meabe eta Mariano Ferrer (argazkian) etorriko dira bakearen gainean berba egitera.

ratuen egoitzan, 17:30ean. Dantzariak eta bertsolariak alaitutako jaialdia izango da eta merienda eta dantzaldia izango dira, bes-

teak beste. Hurrengo asteko ekitaldiekin amaitzeko eguenean eskulan, margo eta argazki erakusketa zabalduko dute Boni Las-

kuraineko egoitzan eta egubakoitzean beste bi ekitaldi izango dira, biak 16:00etan: alde batetik belaunaldien arteko xake txa-

pelketa eta bestetik ibilaldia, auzoetan barrena egingo dena.

MARIANO FERRER, HILAREN 26AN

Aurtengo Hamabostaldiaren bigarren hitzaldia urriaren 26an izango da. Mariano Ferrer kazetari ezagunak *Bakea, gaur eta hemen* gaia jorratuko du Miguel Altunako aretoan, 19:30ean..


Era berean, ikasleei zuzendutako lehiaketa deitu dute aurtenera. Sari bana-keta hitzaldiaren bezperan izango da, hilaren 25ean, 17:00etan.

BILBORA IRTEERA

Kultur Hamabostaldiaren barruan irteera bat ere antolatu dute Antzuola eta Bergarako erretiratuek. Hain zuzen ere, Bilbora joango dira urriaren 28an, besteak beste Guggenheim museoa ikusteko. Bazkaria, berriz, Bakion egingo dute. Izenematea 943 76 30 09 telefonoan egin daiteke.

Urriaren 29an musikarako tartea izango da: San Joxepe eta Errenteriako Maialen abesbatzek emanaldia egingo dute Santa Marina parrokiari, 20:00etan.

Eta Hamabostaldiarekin amaitzeko, azaroaren 5ean herri bazkaria izango da, dantzaldia eta zozketa izango direlarik.



Bedelkarren zozketa eta umeendako parkea zapatuan

Bedelkar herriko dendarien elkarteak antolatuta, umeendako parkea jarriko dute bihar, zapatua, San Martin plazan. Besteak beste, puzgarriak eta zezen mekanikoa izango dira bertan. Goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Era berean, Bedelkarrek zozketa egingo du bihar. 500 euroko bi bono zozketatuko dituzte Bedelkarreko bezeroen artean, arratsalde partean. Bestalde, dendariek gogoratzen dutenez, Bedelkarren txartela eskuragarri dago elkartearen dendarian. Urriaren egindako erosketetan %5eko deskontua egiten dute aipatutako txartelarekin.

LABUR

Buruko gaixotasunen hitzaldia eguenean, Miguel Altunak, Agifes elkartearen eskutik

Agifesek antolatuta, Juan Moro psikiatrak hitzaldia egingo du eguenean, hilaren 20an, Miguel Altunako aretoan, 18:30ean. Buruko gaixotasunak eta birgaitzea aztertuko ditu Moro. Gaiarekin interesa duten guztiak hitzaldira gonbidatzen ditu Agifesek.

'Peru, eguzkiaren atarira bidaia' ikus-entzunezkoa urriaren 20an, Aroztegin

Udazken Kulturalako programazioaren barruan, *Peru, eguzkiaren atarira bidaia* ikus-entzunezkoa eskainiko du Asier Arantzabalek hurrengo eguenean, hilaren 20an, Barrenkaleko Aroztegi aretoan, 18:30ean.

Jardunen eskutik, 9-16 urte bitarteko gaztetxoendako aisialdi programa abian

Jardun elkarteak 9-16 urte bitarteko gaztetxoek zuzendutako aisialdi programa jarri du abian. Hiru talde bereiztuko dituzte eta aste bukaeretan hainbat ekitaldi izango dituzte Arrizuriagan. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 telefono zenbakian.

Langileei zuzendutako hobekuntza ikastaroak Miguel Altuna institutuan, aste barruan

Miguel Altuna institutuak langileei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Hain zuzen ere, mekanika, elektrizitatea, administrazioa eta informatikaren gaineko ikastaroak izango dira astelehenean, 18:00etatik 20:30era. %100ean finantzatutako ikastaroak dira. Argibideak 943 76 70 49 telefonoan.



BERGARA KE

Bergarak etxean jokatuako bi partidua irabazi ditu orain arte.

FUTBOLA/ Ohorezko gazte mailako taldeak Urolaren aurka jokatu du

Bergara-Mundarro bihar, zapatua, Agorrosinen

E.M.

Bergara KEko futbol talde nagusiak Astigarragako Mundarro taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Mahoneroek lehenbiziko partidua galdu zuten zapatuan Eibartarrak taldearen aurka, 2-0. Bihar bisitari izango duten Mundarro lidergoan dago.

Bergarak ez zuen partidu onik egin zapatuan eta 2-0 galdu zuen Eibartarrak taldearen aurka. Josu Zubia Bergarako taldearen entrenatzaileak zera esan digu: "Ez genuen partidu onik egin baina 15 minutu falta zirela eta artean hutsnako emaitzarekin penalti bat huts egin genuen".

Orain arte hiru partidu irabazi eta bakarrik galdu dute Josu Zubiaren mutilek. Sailkapene-

an hirugarren postuan dira, lau partidua irabazi dituzten Zumaiako eta Mundarro taldeen atzetik. Hain zuzen, Mundarro bisitari izango dugu bihar Agorrosinen. Zubiak ezagutzen du biharko aurkaria: "Fisikoki oso talde gogorra da eta ez da partidu erraza izango. Hala ere, sailkapenaren goialdean jarraitzeko hiru puntuak lortzen ahaleginduko gara. Oraingoan, pozik nago jokalarien jarrerarekin eta horrela jarraituz gero hobera egingo dugu".

*Zumaiakorekin
batera, Mundarro
taldeak jokatuako
lau partidua
irabazi ditu*

OHOREZKO GAZTE MAILA IPINTZAN

Bestalde, ohorezko gazteen mailako taldeak Urolaren aurka jokatu du zapatuan Ipintzako zelaian, 18:00etan. Bergararrek bost partidu jokatu dituzte orain arte, 7 puntu lortuz. Aurreko astean Ordizian galdu egin zuten, 3-0. Urola eta Bergara berdinduta daude sailkapenaren erdialdean.

BESTE LAU PARTIDU ASTE BUKAERAN

Bergara KEko taldeek beste lau partidu jokatu dituzte etxean. Zapatuan bigarren kadete mailako Bergara eta Urki taldeak izango dira aurrez aurre Ipintzan, 12:00etan.

Domekan, nesken futbol-8ko taldeak Urolaren aurka jokatu du, 10:30ean; lehen infantil mailako mutilek Arrasateren aurka jokatu dute, 12:00etan. Eta, azkenik, nesken futbol talde nagusiak Urkiren aurka jokatu du, 16:30ean.

Senior mailako saskibaloitaldearen lehen partidua bihar

E.M.

Bergara KEko senior mailako saskibaloitaldeak ligako lehen partidua jokatu du bihar, zapatua. David Urbina eta Mikel Etxerriak entrenatzen duten taldeak Donostiako Alde Zaharraren aurka jokatu du Mariaren Lagundiko kantxan, 18:00etan.

Senior mailako taldea Gipuzkoako Ligan lehiatuko da. Hamarna taldez osatutako bi multzo osatu dituzte eta aurrean ibiltzea da bergararren asmoa. David Urbi-

nak zera esan digu: "Iazko taldearekiko ez da nobedade handirik, Arrasatetik etorritako bi lagun salbu. Saskibaloiarekin gozatzea da gure helburua".

KADETE MAILAKO NESKAK

Senior mailako taldearen aurretik, kadete mailako nesken txanda izango da. Bergarak Atletico San Sebastian taldearen bisita izango du Mariaren Lagundian, 16:00etan. Azken jardunaldian Salletarrak taldearen aurka galdu zuen Bergarak, 19-27.



ASTELEHENKO GOENKARIA

Junior mailako taldeak Gros Xakeren aurka galdu zuen zapatuan, 37-41.

LABUR

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako bi partidua gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako bi partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bigarren kadete mailako bikoteak Kurpil Kirolak taldearen aurka jokatu du eta nagusien mailako bigarren bikoteak, berriz, Beharzan taldeko ordezkarien aurka neurtuko dituzte indarrak. Bergara KEko gainerako ordezkariak etxetik kanpo jokatu dute aste bukaeran.

Azaroaren 13an jokatu den Behobia-Donostia lasterketako izenematea zabalik

Behobia-Donostia korrika lasterketa jokatu da datorren azaroaren 13an, goizez. Partaideek ohiko ibilbidea egin beharko dute, 20 kilometrokoa.

Izenematea zabalik dago. Bergaran, Lazkano oinetako dendan egin daiteke, urriaren 27ra arte. Partaideek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68



ARRI

Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ATLETISMOA/ Ekaitz Osa eta Libe Totorika irabazleak

200 partaide Soraluze-Bergara lasterketan

E.M.

Ekaitz Osa oñatiarra eta Libe Totorika izan dira Soraluze-Bergara krosaren lehen ekitaldiko irabazleak. Antxintxika taldekoek antolatutako proba erabat arrakastatsua gertatu zen: 200 korrikalarik hartu zuten parte. Euria egin bazuen ere, gustura aritu ziren prestatutako ibilbidean, 11 kilometrokoa. Giro ona izan zen nagusi lasterkarien artean. Bergararren artean Roberto Zurro izan genuen onena Fraiskozuriko helmugan: irabazlearengandik minutu bat eta 37 segundora iritsi zen. Irabazleak marka bikaina egin zuen.

HURRENGO URTEAN, DATA BEREAN

Eguaztenean jasotako erantzuna ikusita, hurrengo urtean ere, data berean, krosaren bigarren ekitaldia antolatzeke asmoa azaldu digute Antxintxika taldeko ardura-dunek.



Roberto Zurro izan zen Bergarako lehena Fraiskozuriko helmugan, 2. postuan.

MIKEL LUPIAÑEZ



200 partaide izan ziren Soraluze-Bergara krosaren lehen ekitaldian.

MIKEL LUPIAÑEZ

Lasterketako onenak

Gizonezkoak	Denbora
Ekaitz Osa	35:20
Roberto Zurro	36:57
Iker Larrea	37:00
Zigor Esnaola	37:30
Aitor Alberdi	38:07
Basilio Aranburu	38:35
Jon Arantzabal	39:10
Javier Irazabal	39:33
Jon Azpiazu	39:43
Xabier Elkoro	39:48

Emakumezkoak	Denbora
Libe Totorika	52:55
Maitane Txueka	53:23
Maria Jose Gil	53:58

TERAPIA FAMILIARRA (bikote eta banakako terapia) PSIKOLOGIA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- ELIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

Miriam Mujika 676 61 70 55
Aurrera edifizioa • Urtzaile kalea-1 • EIBAR

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

GABILONDO INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



ALTEA berria. Deportiboa. Erabilera anitzekoa. Funtzionafa. Egun guztietarako auto aproposa. Segundo bakoitzetarako. Azkarra. Espazioarekin. Bihurgune mirengari eta illuragarriak. Goitik beherako aldakuntza dena bakoitzean.

SEAT ALTEA BERRIA

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51

Km 0
kostu prezioan

Stock-aren
likidazioa

• Toledo • Cordoba • Ibiza • Altea

Seat IBIZA 1.4 75 cv
2 Airbag. ABS
Llantak
Klimatizadorea
Irrati-kasetea

10.500 €

Toledo TDi 110 Sport
ABS, ESP, 4 Airbag
Klimatizadorea, Llantak
Pintura metalizatua
Jarleku deportiboak

17.400 €



ARGAZKILARITZA/ San Martin Argazki Rallyko sari banaketa egingo dute gaur Zabalotegin

Fernan Oregi eta Benito Cantero San Martin Argazki Rallyko irabazle

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gaur, egubakoitza, egingo dute San Martin Argazki Rallyko sari banaketa. Egun horretan bertan lehiaketara aurkeztutako lanekin diapositiba emanaldia izango da. Ekitaldia 20:00etan izango da Pol-Pol argazki taldearen Zabalotegiko egoitzan


Pol-Pol Argazki Taldeak antolatuta San Martin jaietan Argazki Rallya egin zuten hainbat zaletuk. Epaimahaikoek erabakia hartzeko denbora tartearen ostean, gaur, egubakoitza, emango dituzte ezagutzera irabazleen izenak.

Lau gairen gaineko argazkiak atara behar izan zituzten: ageriko pintura lehiaketa; txirindulari lasterketa, xake txapelketa eta erreileno eta tostoen kofradia.

Bi eratan atara zituzten partaideek argazkiak: diapositiba moduan edo era digitalean. Diapositibetan 11 parte hartzaile izan ziren: zortzi bergarar eta hiru kanpotar. Digitalean, berriz, zortzi: sei Bergarar eta bi kanpotar.

BOST BERGARAR SARITUTA

Epaimahaia Jose Agustin Gurrutxaga, Imanol Mondragon eta Jorge Murgiondok osatu dute. Euren erabakiz, diapositiben atalean



BENITO CANTERO

Xake txapelketan ateratako argazki hau Benito Canteroren sortakoa da; argazki digitalen atalean lehen saria eskuratu du.

Soraluzeko Fernan Oregik jasoko du lehen saria; bigarrena, Bergarako Jose Aguayok eta Luis Fco. Llavori zumaiarrak hirugarrena. Herritarraren saria Joseba Leturiak jasoko du.

Digitalean Bergarako Benito Cantero izan da irabazle; bigarren Zumaiako Peio Romatet eta hirugarren Juan Antonio Untzurruntzaga bergararra. Herriko saria Josean Arenazarentzat da.

Gaurko sari banaketara joaten direnek lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera izango dute. Izan ere, Zabalotegiko aretoan diapositiba emanaldia egongo da.

Rap, hip-hop eta Chambao taldearen flamenko chill doinuak asteburuan Jamen

I.A.

Jam aretoaren bederatzigarren urteurrena dela eta asteburu honetan ere ez da musikarik faltako. Gaur egubakoitza eta bihar zapatua kontzertuak izango dira. Bestalde, Jardun elkarteak antolatuta eguenean Jabier Muguruzaren emanaldia izango da; hau ere Jam aretoan.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan zabalduko dituzte ateak eta hainbat motatako doinuak entzuteko aukera izango da areto barruan.

SFDK, Zatu eta Accion Sanchezek osatutako bikoak, rap eta hip-hop doinuak eskainiko ditu, azken lana aurkeztuz. Eurekin batera Bad Sound System Irungo DJ eta MC kolektiboak jardungo du. Hauek ere rap, hip-hop,

dance hall, reaggae eta free style doinuak lantzen dituzte hauek ere. No crew-Raptadokoak ere bertan izango dira. Sarrera 15 euro izango da.

FLAMENKOA ETA ELEKTRONIKA

Zapatuan, Chambao Malagako taldea izango da. Flamenkoak eta elektronikak bat egiten dute abestietan eta hortik harago joanda,

ordea, mestizaiaren eredu direla esan daiteke. Sarrerek leihatilan 20 euro balio dute, aurrez, 15 euro.

Eguenean, urriaren 20an, Jabier Muguruza eta Patxi Zubizarretaren *28 letra eta zazpi nota munduaren itzulua* egiteko ikuskizuna eskainiko dute Go Jamen 19:00etan hasita. Emanaldi hau Jardun elkarteak antolatu du eta doanekoa izango da.

LABUR

Taila ikastaroa azarotik maiatzera bitartean

Azaroaren 2an hasi eta maiatzera bitartean taila ikastaroa egiteko aukera izango da. Eskolak eguaztenetan 18:00etatik 20:00etara bitartean izango dira Bergarako Taila Elkarrekin Zabalotegiko dorreaken azpian duen lokalean. Taila egiten ikasi nahi dutenek eguazten arratsaldetan bertara joan daitezke izena ematera. Taila eskolakoek dei berezia egin nahi diete gazteei ikastaro honetan parte hartzeko.

Musika Bandaren kontzertua domekan frontoian

Udal Musika Bandak hilabeteko ohiturari jarraituz kontzertua eskainiko du domekan, urriaren 16an, 12:30ean Udal Pilotalekuan. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean honako bost piezak joko dituzte bandako musikariek: Bogeyren *Woody marta*; *Fantasia Super L'Homme Arme* K. Schoonenbeekenena; J. Barryren *Out of Africa*; O.M. Schwarzen *Man in the ice*; eta *Danza eslava* N. A. Dworakena.

Euskal Herriko historiaren gaineko bi hitzaldi

Bergarako Herri Mugimendua antolatuta Euskal Herriko historiaren gaineko bi hitzaldi izango dira datorren astean. Urriaren 18an, martitzena, Julen Aginakok frankismo garaiko abertzaletasuna izango du berbetarako gai. Urriaren 20an, eguenean, Xabier Larralde Ipar Euskal Herriaren bilakaeraz jardungo du. Bi hitzaldiak kultur etxean izango dira 19:00etan. Bestalde, Herri Eskolak ekimenaren baitan igande arratsaldean film emanaldia izango da gaztetxean.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

MINGAINARITIRAKA



Nagore Narbaitza

HEZKUNTZA TEKNIKARIA

Berrizkoa da Nagore, baina Markinan bizi da gaur egun. Handik etortzen da egunero. Apirila ezker, Udaleko Hezkuntza teknikaria dugu. Haren lana da koordinatzea Udalak hezkuntzan egiten duen guztia.

Egunero Markinatik Bergarara lanera etortzen zara. Zer moduz errepidean?

Hiru ordu laurden egiten ditut Markinatik Bergara, baina ez nau askorik ardua; izan ere, asko gustatzen zait gidatzea.

Hezkuntza teknikaria zara. Baina orain, esaniezaguz, zeu zelako ikaslea zinen?

Bada, ez oso ona, baina ezta txarra ere.

Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?

Momentu honetan, jende mordoaz egiteko aukera ematen dit nire lanak; gainera, ez da batere lan monotonoa.

Eta gutxien?

Lanak duen erantzukizuna.

Ikastaroren baten izena eman duzu aurtengo ikasturterako? Aukera badago, behintzat, ezta?

EHUko gradu-ondoko bat egiteko izena eman nuen, baina itxarotzerrendan nago. Spinning ikastaroan ere badihardut.

Egiteko geratu zaizun zerbait ikasketetan?

Gauza asko; hizkuntzetan gehiago sakondu nahiko nuke. Bestetik, atzerrira ikastera joateko gogoz ere geratu nintzen.

Lanez aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?

Orain ez nuke lanez aldatuko, orain dela gutxi egin dut eta.

Liburu bat?

Toti Martinez de Lezearen edozein; *La herbolera*, esaterako.

Film bat?

Aupa Etxebeste!

Kolore bat?

Berdea.

Asteburu baterako plan ideala?

Jende aproposarekin, edozein plan da egokia.

Jakin-mina pizten dizun herrialde bat?

India.

Bergaran zer falta da?

Zinema areto bat eta antzoki bat.

Bukatzeko, amets bat?

Zorionsu bizi izatea.

KANPOTARRAK BERGARAN

ANA MARGARITA BURGOS

43 URTE / KOLONBIARRA / ORAIN DELA HAMAR HILABETE ETORRI ZEN BERGARARA

“Arte irakaslea nintzen Kolonbian; lana laga eta hona etorri naiz bizimodu hobearen bila”

AINZANE IRIZAR

Senarra, bi seme-alaba, familia eta lanbidea, dena atzean laga zuen Ana Margaritak Bergarara bizimodu hobearen bila etortzeko. “Ni irakaslea nintzen Kolonbian, arte irakaslea; senarra, baina, lanik gabe geratu zen. Hark oso zaila zeukanez lana topatzea, erabaki genuen aukera egokiena zela nik nire lana laga eta hona etortzea”, azaldu digu Ana Margaritak edo Anitak (halaxe deitzen diote lagunek).

Arte Ederretan lizentziaduna da Anita; Bogotan bere ikaskide izandako Marta Bergaran bizi da orain dela urte batzuetatik. “Orain dela 25 bat urte eza gutzen dugu elkar; hark topatu zidan lana hemen. Zorte handikoa izan naiz; izan ere, lan kontratuarekin eta paper guztiak behar bezala nituela etorri nintzen Bergarara”, diosku Anitak. Hori horrela eta Marta bere laguna zain zuen arren, eta bere lan berrian oso ondo hartu zuten arren, zera diosku: “Oso urte gogorra izan da; senarra eta bi seme-alaba ditut, 11 urteko neska-mutiko bikiak, eta sekula ez gara banandu; lan ere euren ikasketean egiten nuen. Hauze izan da lehenengo aldia”.

Abenduan iritsi zen Ana Margarita Bergarara. Eta gauza askok harritu zuten hasiera hartan: “Oso ezberdin jaten duzue, esaterako; guk plater bakarrean denetik pixka bat jaten dugu. Ez neukan sekula ikusita lehenengo platera, bigarrena, postrea, kafea... Jatun onak zarete, benetan!”. Tabernetan poteoan ibiltzeko ohitura ere atzerritar guztiak harritzen dituen kontua da.

Bestalde, Bogotatik Bergarara etortzea aldaketa handia da. Alde batetik, tamainarengatik, aldea oso handia da. “Horrez gainera, harrigarria da niretako umeak kalean bakarrik ikustea; izan ere, han ez dago hemen dagoen segurtasuna”, diosku.

“Oso urte gogorra izan da; senarra eta bi seme-alaba ditut eta banantzen ginen lehen aldia izan da”

FAMILIAREN ZAIN

Familia Bergarara bizi izatera ekarri nahi du Anitak. Abendura arte itxaron behar du paperak egiteko, baina bere helburua da senarra eta seme-alabak hona ekartzea. “Izango dudun zailtasun handiena etxebizitza aurkitzea izango da; orain Martarekin bizi naiz, baina familia ekartzeko etxebizitza bat aurkitu behar dut eta hori

oso kontu zaila da. Agintariak eskatzen didate etxebizitza bat edukitzea familia ekarri ahal izateko. Errentan hartzeko etxebizitzarik ia ez dago hemen, ea zortea dudan eta zerbait aurkitzen dudan”, diosku.

Umeak zaintzen dihardu Anitak, oso gustura, gainera. Ohituta dago umeekin; izan ere, arte irakaslea izan zen Bogotan. Familiako beste bat bezala hartu dutela kontatu digu.

Dena dela, Kolonbiaren hutsune handia nabaritzen du, herrimina, alegia, normala den moduan. “Familiaz gainera, hango klima, paisaiak, eskolako nire umeak... ikusteko irrikan nago”, azaldu digu. Etorkizuna, baina, momentuz Bergaran duela uste du Anitak, Kolonbiako egoerak okerrera egin duelako azkeneko urteotan.



AINZANE IRIZAR

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

BERGARA
Margoak

Certificado ISO 9001 por
BVQI

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da
Partaittiko
baserri honen
izena?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BILAITZ MARZAN endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Bilaitz!

Galderaren erantzun zuzena: **Iparragirre kalean eta Xabier Munibe plazan.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Koipesol olio

Litroko botila

1,19€

198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA
Saskibaloit
taldea,
1977

Orain dela 28 urtekoa da ondoko argazkia. Bergara KEko saskibaloitaila 1977an sortu zen eta albokoa junior mailako taldea da. Garai hartan Mariaren Lagundiko kantxan eta San Martin plazan jokatzen zituzten partiduak.

Poliki-poliki sendotzen joan zen saskibaloitaila eta beste mailetan taldeak osatu zituzten.

Edozein modutan, herriko saskibaloitailaren aitzindariak hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Txiki Oiarzabal, Josu Ibabe, Valen Moñux, Jesus Mari Oxu Esnaola, Jokin Ugarte, Joaquin Soto, Josean Arteaga eta Tomas Hernandez (entrenatzailea).
Makurtuta: Joakin Etxaniz,



Remi Arantzabal, Roberto Alvarez Chust, Inaxio Ugarte, Angel Macias eta Joserra Irigoien.

Argazkia: BKE artxiboa

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 14**
ZABALA, Barrenkalea 25. . . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 15**
GUALLAR, San Antonio 5 . . . 943 76 11 05
- DOMEKA, 16**
GUALLAR, San Antonio 5 . . . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 17**
ESTELLA, Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 18**
MOZOS, Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 19**
CAMACHO, Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- EGUENA, 20**
ZABALA, Barrenkalea 25. . . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . . . 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Urtarrietik aurrera ezingo da lantokietan erre. Zer iruditzen zaizu?



MARIA PUENTE



ANGEL ELKORO



M. DOLORES ARANTZABAL



MIKEL UGALDE



ASCEN JIMENEZ



MIGUEL DIAZ

Ongi. Gurean ez du inork erretzen, beraz, ez digu etxeko inori eragingo neurri honek. Hala ere, erretzaile ez garenok kalte egiten digu zigarroaren keak. Hortaz, ongi dertzitot erretzen ez lagatze-ari, baita lantokietan ere.

Lantokian erretzen ez lagatzea ongi iruditzen zait; betiere erretzaileendako beste gelaren bat egokitzen badute. Erabat debekatzea ez da kontua. Pixkanaka oztupoak ipiniz gero eurak joango dira lagatzen.

Ongi iruditzen zait. Ni ez naiz erretzailea eta etxean ere ez diot inori entzun kexarik neurri honen gainean. Niri traba handia egiten dit zigarroaren keak eta usainak; beraz, ados nago debekuekin.

Gehiegizkoa da neurri hori. Delitutzat hartzen da gaur egun erretzea, eta erretzaileok gaizkileak gara. Nik erretzeari utzi nahi diot, baina ez da bidezkoa erretzaileok jasaten dugun jazarpena.

Niri, erretzaile ez naizen aldetik, ongi iruditzen zait horrelako neurriak hartzea. Erretzen ez duenak eskubideak dituela uste dut. Hala ere, erretzen dute-nendako toki bat ipini beharko lukete lantegietan.

Ongi, baina erretzaileak ere kontuan hartu behar direla iruditzen zait; beraz, lantokian toki bat egokitu beharko lukete erretzeko. Gurean orain behintzat badago, eta ez dakit urtarrietik aurrera zer gertatuko den.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK CANDY-KO SARRERA Herritar batek idatzi digu kexatzen, Candy ingurua penagarri dagoelako. Auzoa erabat utzia eta hondatuta dagoela, aspaldian ez delako konponketa lanik egin; zorua zuloz beteta dagoela; paseatzeko jende askok erabiltzen duen arren, kaminoa argiztatu barik dagoela; espaloirik ez dagoela... /E.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Parra"



—Bentanatik salto eñ nai badau be parra-parra joten jostak.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“Zapatuan, urtemugako gurtzan, eskerrak eman genituen hainbat urtetan Bergaran adorazio talde hau izateagatik eta gurtzaile berriekin jarraitzeko eskaera ere egin genuen. Bergaran 45 lagunek osatzen dugu taldea eta gura duten guztiak etor daitezke, baita taldeko kide ez direnak ere. Otoitzerako gaua aukeratzan dugu Jesusek ere gaua erabiltzen zuelako erretiroa hartu eta otoitz egiteko. Unerik onena da. Egunez burua arduraz beteago izaten dugu eta gauez erlaxatuago gaude, estuasun barik, askeago egoten gara otoitz egiteko. Gauez errazago da bakea aurkitzea eta otoitz egiteko egoera hobean egon ohi gara. MARIA ASUN BELASTEGI / Bergarako Gau-Gurtzako presidentea 'Asteleheneko Goienkaria' /05-10-10

“Zapatuan, urtemugako gurtzan, eskerrak eman genituen hainbat urtetan Bergaran adorazio talde hau izateagatik eta gurtzaile berriekin jarraitzeko eskaera ere egin genuen. Bergaran 45 lagunek osatzen dugu taldea eta gura duten guztiak etor daitezke, baita taldeko kide ez direnak ere. Otoitzerako gaua aukeratzan dugu Jesusek ere gaua erabiltzen zuelako erretiroa hartu eta otoitz egiteko. Unerik onena da. Egunez burua arduraz beteago izaten dugu eta gauez erlaxatuago gaude, estuasun barik, askeago egoten gara otoitz egiteko. Gauez errazago da bakea aurkitzea eta otoitz egiteko egoera hobean egon ohi gara. MARIA ASUN BELASTEGI / Bergarako Gau-Gurtzako presidentea 'Asteleheneko Goienkaria' /05-10-10

HAUGIROA!

MINIMOA	5 °C		
Eguaztena, 5			
MAXIMOA	28 °C		
Zapatua, 8			
ASTEKO EURIA (l/m ²)	1,1 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	21 °C	5 °C	— l/m ²
Eguena, 6	24 °C	7 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 7	27 °C	6 °C	— l/m ²
Zapatua, 8	28 °C	7 °C	— l/m ²
Domeka, 9	27 °C	10 °C	0,5 l/m ²
Astelehena, 10	25 °C	11 °C	0,6 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKDIÑO/ Jose Angel Mikeo



Deklarazioak

San Inazio bezperan zabaldu zuten Arrasate-rainoko autopista eta momentu "historikoari" zegozkion adierazpenak egin beharrean edo, egin zituzten inguruko alkateok. Birekin gelditu nintzen: bata Arrasateko alkatearena: "Leintz Bailara behingoz Gipuzkoan kokatu da errepide honi esker". Bestea Oñatiko alkatearena: "Lan honek lanera garaiz eta eroso heltzeko aukera emango digu". Lehena adierazpen politikoa, Diputazioaren aurrean edo, bazterrean egon denarena. Bigarrena praktikoa, lanera lehenago helduko gara, beraz ohean edo denbora gehixeago egoteko aukera...

Irailaren bata. Jende guztia lanean hastekoa da goizaldean. Arrasaten hasi eta Altos Hornosko fabrikarainoko ilara aurkitu dut. Hiru ordu laurden geroago Aretxabaletara heldu naiz. Hurrengo astetan berdin. Egunero bi alkateon adierazpenoi bueltak ematen noa, astoaren pausoa, San Prudentzian

"errosario" zati bat erreztatu eta beste "erresponso" bat bota arte.

Neu nabil oker, autopistatik joan beharra dago! Hortxe trukua. Hurrengo egunean Zabalan kafesnea hartu eta bederatzi kilometroko zeharkaldiari ekiteko indarrez nago. Autopista hartu eta berehala

"Aretxabaletara errepidez beste denbora tardatzen da autopistaz Donostiara joaten"

ordainlekuan. Lau kabina zabalik. Hamar bat auto bakoitzean pagatzeko itxoi-ten. Azkenean ordain lekura heldu eta 45 zentimo ordaindu ostean ez dago aurrera egiterik, lau atetatik irtendako guztiok karril batetik joan nahi dugu Arrasate-rantz eta betiko errepidetik datozenekin tope egiten dugu. Bi alkateekin akordatu naiz. Biak arrazoia daukatelakoan nago. Aretxabaletara errepidez beste tardatzen da autopistaz Donostiara joaten. Beraz, behingoz, modernizatu nadin eta integra gaitzen Gipuzkoan. Donostian lana egin ezker bi alkateek esandakoa beteko dut, izan ere garaiz eta eroso helduko bainaiz lanera probintziaren kohesioa bide batez bultzatuz.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldeg
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a / 260. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Gizarte eta kultura ekipamenduen gaineko proposamena egin du Gertu Gaek

AINZANE IRIZAR

Gertu Gae plataformako kideek prentsaurrekoa egin dute oraingo astean; hantxe, gizarte eta kultura ekipamenduen beharrei aurre egiteko eurek proposatzen duten irtenbidea azaldu zuten. Olaran etxea erabiltzea proposatzen dute, besteak beste.

Udalak oraindik behin betiko proiektua aurkeztu ez duen arren, behin behinekoaren berri eman zigun duela hilabete batzuk. Orain, Gertu Gae plataformak bere proposamena egin du.

EAJ-EAren proiektuaren arabera, Eguzki eta Beheko auzoen artean, Udalak bultzatutako etxebizitzak eta kultura eta gizarte ekipamendu batzuk izango dituen eraikina egingo dute. Sotoak ia 700 metro koadro izango ditu eta gainerakoek 400. Sotoa kultura eta gizarte ekipamenduetarako erabiliko dute; gainerakoak, etxebizitzak izango dira. Bestalde, Sagastin beste eraikin bat egingo dute eta hantxe jarriko dituzte gainerako ekipamenduak. Hori aurrera eramateko arau aldaketaren prozesua amaitzear da.



Juan Antonio Iturbe, Patxi Olabarria eta Fernando Iturbe, astelehenean egindako prentsaurrekoan.

GERTU GAEREN PROPOSAMENA

Horren aurrean, Gertu Gaek bere proposamena kaleratu nahi izan du: "Arau subsidiarioen aldaketetan, geure alegazioak aurkeztu genituen, baina, ez ziguten kasu-

rik egin", adierazi digu Juan Antonio Iturbe hautetsiak.

Oraindik garaiz gaude izenburuarekin egin zuten prentsaurrekoa, eta izenburu horrexekin banatuko dituzte euren proposa-

mena azaltzeko esku-orriak.

"Gure ustez, gizarte eta kultura ekipamenduak egiteko nahikoa da Guraso Elkartearen eraikina zegoen tokian egingo duten eraikina eta Olaran etxea erabil-

Euren proposamena azaltzeko esku-orriak banatuko dituzte Gertu Gae plataformako kideek

tzea; ez dago Sagastiko zelaiaren beste eraikin bat egin beharrik. Sagastin parkea egin behar da gure ustez", adierazi digute.

Maristena zegoen tokian egingo duten eraikinean, sotoa ez erabili behelako solairua ere kultura eta gizarte ekipamenduetarako bideratzea proposatzen du Gertu Gaek. Gainera, beharra egonaz gero, baita lehenengo solairua ere. Hori guztia eginda etxebizitzak egiteko aukera baldin badago goian, hori ere ondo ikusiko dute, baina etxebizitza sozialak egitea proposatzen dute. "Gure taktiko, lehenasuna eman behar zaie ekipamenduei eta ez etxebizitzak eraikitzeari", azaldu zuten.

Gainera, sotoaren gaineko aldean geratuko den plaza eta kampo gorria ondo bateratu beharra daude euren ustez.



Bardean bizikletaz

Arrola mendizale elkarteak antolatuta, hogeita hiru laguneko taldea egon zen domekan Errege Bardean. Gehienak bizikleta eta guzti joan ziren, 14 bat lagun, hain zuzen ere. Gainerakoek oinez egin zuten ibilaldi bat.

Ramon Romero izan zuten gidari, ondo ezagutzen dituzte eta inguru haiek. Rallon eta Piskerra mendietan egon ziren, besteak beste.

Beste bizikleta irteera bat ere egin zuten, Landan; hantxe, 36 lagunek parte hartu zuten./A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

PILOTA

Urriak 14 (Gipuzkoako Txapelketa)

19:30: Olalde-Lagunak (Gazteak)

Ondoren: Olalde-Zazpi (Iurri) (Nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 0 Segura 1 (Gazteak)

Soraluze 0 Antzuola 0 (Erregionalak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.

Olalde-Añorga (Gazteak) 22-11

Beloki-Olalde (Nagusiak) 22-11

Olalde-Real Soc. (Pala motzean) 23-40

ELKARRIZKETA

URKO ALTZERREKA/KARMEN IRIZAR PRESOAREN SEMEA

“Jendeak ez du presoek eta senideok bizi dugun egoeraren kontzientziarik hartu”

AINZANE IRIZAR


Presoen senitartekoek jasotzen dituzten dirulaguntzen gaineko proposamena aurkeztu zuten aurreko osoko bilkuran. Horren gainean eta presoek eta euren senitartekoek bizi duten egoeraren gainean berba egin dugu Urko Altzerrekarekin.

Proposamen bat aurkeztu zenioten Udalari. Zer eskatzen zenuten?

Udalak badauka arautegi bat laguntzak emateko, baina guk zerbaít gehiago eskatu dugu. Bate-tik, laguntza horiek deportatuen familiendako ere izatea. Bestalde, araudiak dio presoak Antzuolan erroldatuta egon behar duela, eta guk eskatzen dugu erroldatuta dagoen edo bertan jaiotakoa denarendako izatea. Bestalde, kilometro bakoitzeko 10 zentimo ematen digute eta laguntza hori 20 zentimo izatea eskatu dugu. Lehendabiziko bi proposamenak onartu egin dituzte, baina, diruari dagokionez, 12 zentimo ematea onartu dute.

Ze gastu dakar senitartekoren bat preso izateak?

Hori da preso non dagoen. Gure kasuan, 600 kilometro egiten ditugu bidaiara bakoitzeko; Jose Luis Eroste-giren senitartekoek,



“Politikoei esango nieke hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela”

“Osasuna eta bizia arriskuan jartzen dugu astebururo, senideak bisitatzerara joateko”

berriz, 1.200 kilometro egiten dituzte joan-etorrian. Guk egun baten egiten dugu bidaiara; beste batzuek, berriz, asteburu osoa behar izaten dute.

Baina, horrek guztiak, kostu ekonomikoez gain, osasuna eta bizia arriskuan jartzea ere ekartzen digu. Astero kilometro mor-doa egin behar izaten dugu, eta istripu asko izan dituzte senitarteko eta lagunek. Askok, gainera, hil egin dira.

Guk eskatzen duguna da eurek jarraitako legea errespeta dezatela eta presoek bete ditzatela zigorrak euren etxetik gertuen dauden espetxeetan. Politikoei, berriz, esango nieke pasa daitezela hitzetatik ekintzetara.

Ze egoeratan daude Karmen eta Jose Luis?

Egoera kontuan hartuta, nahiko ondo. Dena dela, jendeak jakin dezan, hona hemen datu batzuk: Karmenek astean 5 minutuko hiru dei ditu; Jose Luisek bost dei; astero hiru gutun bakarrik idatz ditzakete eta bisitak 40 minutukoak dira. Jendeak ez du egoera horren kontzientziarik hartu; jende askok ez du horren guztiaren berririk, baina nahi duenak, interesa duenak, galdetzen digu. Egubakoitzero kontzentrazioa egiten dugu, eta 20 lagun besterik ez gara egoten. Jendea kontzientziatu beharra dago.

LABUR

Urruti eta Gorriz arteko bidea laster konponduko dute

Egubakoitzean egin zuten osoko bilkura; hantxe, Urruti eta Gorriz arteko bidea konpondzeko lanak esleitu zituzten. Construcciones Perak egingo ditu lanok, 92.486 euroko aurrekontuarekin. Enpresa horrek konpromisoa hartu du urriaren lanok amaitzeko.

San Donatorako irteera azarora atzeratu dute

Arrola elkartekoek urriaren 23rako, domeka, aurrez ikusi zuten Lizarragatik San Donatorako mendi irteera. Halaxek dator Udalaren egitarauan ere. Azkenean, baina, atzeratu egin dute irteera hori, eta azaroaren 6an izango da. Izena emateko eguna jakinaraziko dute Arrolako ardura-dunek.

Kultura Hamabostaldia astelehenetik

Antzuola eta Bergarako erretiratuek antolatuta, Kultura Hamabostaldia izango dugu astelehenean, hilak 17, hasi eta azaroaren 5era arte. Besteak beste, astelehenean, 18:00etan, kartela aurkeztuko dute eta martitzenean, bakegintzaren gaineko berbaldia egongo da Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

Baserrien gaineko hitzaldia datorren eguenean, hilak 20

Datorren asteko eguenean, hilak 20, Olanan etxean, 19:00etan, Antzuolako baserrien gaineko hitzaldia izango dugu. Josu Tellabide etnologoak egingo du hitzaldia. Zaharkinak proiektuan parte hartu zuen Josuk, eta ondo ezagutzen ditu gure baserriak.

PILOTA

Herri Mailako Eskuz Binakako txapelketan izena emateko epea zabaldu dute Olalde elkartekoek

A.I.

Olalde elkarteko arduradunek, urtero moduan, Herri Mailako Eskuz Binakako pilota txapelketa antolatu dute. Izena emateko epea zabalik dago.

Maila bakarrean antolatu du Olalde elkarteak Herri Mailako Eskuz Binakako pilota txapelketa: hamabost urtetik gorako jokalarientzako antolatuta dago eta pilota goxoarekin jokatuko dute, ohi bezala.

Txapelketarako izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko; urriaren 23ra arte, domeka, egongo da izena emateko aukera. Horretarako, Olalde elkarteko kide hauekako batengana jo behar duzue: Felix Agirre, Bittor

Arbulu, Josu Zabalo edo Balendin Zabalorengeana, hain zuzen ere. Izena ematerakoan, bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar du. Egunik zehazteke duten arren, Gabon jaiak aurretik bukatuko da txapelketa.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko urriaren 14a / 242. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Hondarribiko arraunlariek omenaldia jasoko dute urriaren 22an Elgetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurten Kontxako bandera sonatua eskuratu du Ama Guadalupekoa traineruak. Hondarribikoek Elgetako koadrila batekin duten harremana dela-eta, datorren urriaren 22rako omenaldia antolatu dute; eta lehiarik ere ez da faltako egun honetan.

Orain dela urte batzuk Elgetako lagun koadrila batek Hondarribiko Arraun elkartera egin zuen bisita. "Instalazioak ikusi, traineruan ibili eta arraun giroa ezagutzeko aukera izan genuen; eta egun polita pasa genuen bertakoekin", esan digu Josu De Vega koadrilako kideak. Gerora, hainbat estropada saiotan izan dira elgetarrak Hondarribiko trainerua animatzen.

Egun horretan ongi pasa zutela-eta eskertzeko beharra ikusi zuten elgetarrek. Josu De Vegak esan digunez, "hain entzutetsua den Kontxako bandera irabazi zutenean, iruditu zitzaigun une egokia zela omenaldia eta eskerak emateko ekitaldi xume bat

egiteko; eta hala urriaren 22rako antolatu ditugu hainbat ekintza".

SOKATIRA ETA BOLO-JOKOA

Hondarribiko arraunlariak eta zuzendaritzako kideak etorriko dira egun horretan Elgetara.

Eguerdian ohorezko aurrerakua dantzatuko diete plazan, eta ondoren udaletxean harrera izango da. Bertan, omenaldia gertatu duten herriko bi koadrilek eta Udaleko ordezkariak oroigarriak emango dizkiete.

Arraunean erakusten duten indarra beste kirol batzuetan ere azaldu beharko dute egun horretan Hondarribiko arraunlariek. Izan ere, omenaldia egin ostean, plazan sokatiran jardungo dute arraunlariek elgetarren kontra; eta baliteke Isuntzako arraunlariak ere etortzea, egun horretan Abadiñon hitzordua dutelako. Sokatiran ez ezik bola-jokoan ere lehiatuko dira.

Ondoren, poteoa egingo dute eta gero guztiek batera Intxorta elkartean bazkaldu. Goizean barrena gainera, Espaloian Hondarribiko traineruak jokaturako estropaden irudiak ipiniko dituzte, bideoan.

DATORREN URTEAN BERRIZ

Omenaldia antolatzen buru-belarri dabilen Josu De Vegak esan digunez, "datorren urtean Hondarribira berriz joateko asmoa dugu, eta baliteke orduan elgetar gehiago ere animatzea. Merezi du traineruan ibiltzea eta hango giroa ezagutzea".

Elgetako bi koadrilak eta Udalak omenduko dute Hondarribiko trainerua



Ama Guadalupekoa traineruarekin hainbat bandera irabazi dituzte Hondarribiko arraunlariek amaitu berri den denboraldian.

MIKEL ORBAÑANOS/HONDARRIBIKO ENTRENATZAILE ETA ARRAUNLARIA "Denboraldia ezin hobea izan da; Kontxan irabazi eta TKE ligan erregular ibili gara"

I.A.

Aurten Hondarribiko traineruak lortutako emaitza bikainetan izango zuen zerikusirik Mikel Orbañanos entrenatzaile eta arraunlariaren lanak. Denboraldiaz eta Elgetarako bisitaz jardun dugu.

Denboraldia amaituta, zein balorazio egiten duzu?

Ona. Urtea nola joan den ikusita gustura gaude. TKE ligan erregular ibili gara hasieratik; gainera, lau garaipen eskuratu ditugu. Bestalde, gure ilusioa zen Kontxako estropadan lan txukuna egitea, eta lortu dugun emaitza, bandera, alegia, ezin hobea izan da. Oso pozik gaude egindakoarekin.

Hasi zarete hurrengo denboraldia gertatzen?

Orain atsedean hartzeko ordua da. Hilabete eta erdiko oporrak difugu eta askok kanpora joateko aprobetxatzen du. Hala ere, ni neu hasi naiz datorren denboraldian pentsatzen. Azaroan ekingo diegu berriz entrenamenduei.

Ze aurreikuspen egin duzue?

Ez dakigu taldea nola geldituko den, baina arraunlarien gehiengoak jarraitzen badu, aurtengo mailari eustea izango da gure helburu nagusia.

Ez al da arraroa Elgetak egitea omenaldia?

Bada, ideia bitxia iruditu zitzaigun; baina era berean pozgarria Elgetako jendea gurekin gogoratzea. Izan ere,



harriduraz jaso genuen deia, baina oso gustura joango gara. Arraunlariak esperientzia berri hau bizi izateko gogotsu daudela esan didate. Elgetarrei eskerrak eman nahi nizkieke, guztien partetik.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

KULTURA

Yllana konpainiaren '666' antzezlan gaur iluntzean Espaloia Kafe Antzokian

Antzerkia eta musika izango dira Espaloiko hurrengo ekitaldien ardatz. Gaur iluntzean Yllana taldearen ikuskizuna egongo da; martitzenean, berriz, hamaika musikariek emanaldia eskainiko dute eta datorren barikuan jazz kontzertua izango da.

Umerezko antzezlan ikusteko aukera izango da gaur, 22:30ean, Espaloian Yllana antzerki taldearen eskutik. 666 obran, heriotzaren korridorean egingo dute topo lau presok. Horren egoera negargarriari barrez eta ikuslari barre eginaraziz aurre egiteko gauza izango dira.



Umerezko landuko dituzte heriotza, biolentzia eta halako gaiak Yllanakoeak.

BI MUSIKA EMANALDI

Antzerkiari musikak hartuko dio lekukoa datorren astean. Martitzenean, hilaren 18an, hamaika kantarik batera jardungo dute. Lauaxetari omenaldia izango da *Ehungarrenean hamaika* kontzertua. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta honako musikariek abestuko dute: Mikel Urdangarin, Gari, Eñaut Elorrieta, Rafa Rueda, Jabier Mugurutz, Anje Duhalde, Txuma Murugarren, Petti, Xabier Montoia, Xabi Strubell eta Francis Diezek.

Bestalde, hurrengo barikuan, urriaren 21ean, Mac Jeara's Band taldeak *Jazzaren abiadurak* ikuskizuna eskainiko du 22:30ean. Emanaldia Udalak eta Kutxak antolatu dute elkarlanean.

GARRAIOA

Hitzarmena garraio zerbitzu bereziko

Udalak hitzarmena egin du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2005-2006 ikasturtean garraio zerbitzu berezia eskaintzeko. Foru Aldundiak gehienez kostuaren %60 ordainduko du, betiere muga 13.812 eurotan ipinita.

Iaz irailetik ekainera bitartean eskaini zuten garraio zerbitzu berezia. Udalak 25.192 euroko gastuak izan zituen. Gastu hauei aurre egiteko Foru Aldunditik 13.812 euroko dirulaguntza jaso zuten. Bidaiarien sarreretatik,

berriz, 3.154 euro. Beraz, Udalak 8.226 euroko galerak izan zituen.

Bidaiarietatik lortutako diru sarrerak kontuan hartuta azarozan ibili zen jende gehien; ia 600 bidaiari. Gutxien, berriz, maiatzean, kopurua ez zen 150 lagunera iritsi. Udan, berriz, jende gutxiago ibiliko zela aurreikusita taxi bidez egin zuten garraio zerbitzua. Uztailen 100 bidaiari izan ziren eta irailean zazpi.

Galerak ekarri arren, Udalak erabaki du aurten ere garraio zerbitzua eskaintzea, eta horretarako sinatu dute hitzarmena.



Hasi berri den ikasturtean ere Pesa konpainiak egingo du garraio zerbitzua.

LABUR

Boluntarioak behar dira umeen zinema emanaldietarako

Datorren azaroaren 6an hasiko dira berriz domeka arratsaldeetako zinema emanaldiak; umeendako eta familiendako saioak, hain zuzen ere. Egun horretan hasi eta apirilaren 23ra bitartean filmak ikusi ahal izango dira domeka arratsaldero 17:30ean Espaloian. Zinema emanaldi hauek antolatzekeo ardura herriko umeen gurasoena da. Beraz, orain prestaketa lanean dihardutenek boluntarioen laguntza eskatu dute lagintza honetarako. Interesatuek Herri Eskolan Guraso Elkartekoek ipini duten zerrendan idatzi beharko dute euren izena. Saio bakoitzeko bi lagunek egon beharko dute. Haien ardura da aulkiak ipini eta jasotzea eta sarrera kobratzea. Filmak aukeratzeko orduan gurasoen iradokizunak ere eskertuko dituzte.

Zazpi proposamen egin dituzte udal aurrekontuetarako

Udalak 2006ko aurrekontuak gertatzeko lehen pausoak ematen dihardu. Aurten lehen aldiz eman die aukera herriarrei aurrekontuen gainean proposamenak egiteko. Guztiira zazpi jaso dituzte. Horietatik hiru baserri inguruetan hobekuntzak egiteko izan dira (ur hornidura, bideak...); beste hiruk herri barruan hobekuntzak egiteko beharra ikusi dute; eta azken iradokizuna aparkalekuen gainekoa izan da, San Roke kaleko aparkalekuak, hain zuzen ere. Orain, zinegotzi eta teknikariek batzorde bakoitzean aurkeztu beharko dute euren aurrekontu proposamena, eta ondoren, dena bateratu eta egokitu ostean, alkateak zinegotzietatik aurkeztuko die haiek onar dezaten. Alkatearen asmoa da urtea amaitu aurretik aurrekontua onartzea udalbatzarrean.

HERRITARREN HITZA / Ana Gillegi - Kazetaria

Estra-eskolar asko eta estra familiar bat ez

Desastrea: Titulu hau zuen Antonio Galak *La Tronera* sailean idazten zuen gaiak, larria.

Honoko datu hau ikaragarria: geroz eta gehiago dira gurasoak erasotzen dituzten seme-alabak.

Azken urteetan gure umeek duten boterea handitu dela iruditzen zait, ez dago umeak asetzeko modurik.

Gurasook sinesgarritasuna, konfiantza eta autoritatea galdu dugu umeen artean.

Geroz eta denbora gutxiago gure seme-alabekin egoteko, geroz eta harreman hotzagoak etxekoan artean, eta gure ardurak eta egin beharrekoak

hirugarren pertsonen eskutan: eskola, hezitzaile, zaindaria...

Umeek gurasoen erreferentziak galduko dituzte zalantzarik gabe. Neska-mutikoak psikologoaren kontsultetan, asko, baina ez ote dira gurasoak ere han egon behar?

Familian hainbat gai landuko balira, ez litzateke hainbeste arazo egongo, eta lantzen ez direnez zalantzarik gabe hor daude denon ahotan/eskutan



"famiak badu egiteko bat: gure seme-alabak zorionsu hezte"

biolentzia, drogak (alkohola problema larri bat da, ez da hilabete 12 urteko neska-mutikoak mozkortuta ikusi ditugula), errespetu falta eskolan (nabarmena, irakasleekiko eta baita beraien eskola kideen artean)...

Ez pentsa *bulling*-a Hondarribin dagoela bakarrik, edo nerabe mozkorrak aldameneko herrian; ez pentsa irakasle edo helduei zor diegun begirunea alboko

etxean dagoenak ez duenik; ez pentsa bere seme edo alaba salatu duen gurasoak ez ditugunik.

Familiak badu egiteko bat (berdin zait nortzuk osatzen duten familia), gure seme-alabak zorionsu hezte. Baina zoriontasun horretan ez nuke ipiniko eskatzen duten guztia ematea.

Erraza dirudi egiteko honek baina zein zaila burutzea. Zenbat konpetentzia inguruan! *Estra-eskolar* asko eta *estra familiar* bat bera ere ez.

Men sana in corpore sano, gorputza majo lantzen da baina burua...

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko urriaren 14a / 23. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: 55482/05

Aurreko udan baino turista gehiago etorri dira aurten Oñatira

OIHANA ELORTZA

Ekainetik irailera, ia 7.000 turista pasa dira Oñatiko turismo bulegotik. Euskal Herritik ez ezik, Erresuma Batutik, Frantziatik, Kanariar Uharteetatik, Kanadatik eta Japoniatik etorri dira, besteak beste. Natur ibilbideek arrakasta handia izan dute.

Ia 7.000 turista pasa dira Oñatiko turismo bulegotik ekainetik iraila bitartean, 6.974 bisitari, zehazki. Joan den udan baino turista gehiago izan dira aurten Oñatin.

KANPOTIK

Euskal Herriko beste herrietatik ez ezik, kanpotik ere etorri dira turistak udan Oñatira. Kataluniar eta madrildar asko etorri dira, adibidez. Valentziakoak, Gaztela eta Leongoak, Greziakoak, Italiakoak, Ceuta eta Melillakoak eta Andaluziakoak ere etorri dira, besteak beste.

Iraileko datuei begiratuta, 1.022 turista pasa dira turismo



Turismo bulegoko langileek bisita gidatu asko egin dituzte aurtengo udan.

bulegotik. Gehienak, Gipuzkoakoak, Kanariar Uharteetakoak, Madrilgoak, Kataluniakoak eta Erresuma Batukoak.

NATUR IBILBIDEAK

Natur eskolarekin batera udarako antolatutako natur ibilbideek arrakasta handia izan

dute. Bisitari askok hartu dute parte, Madrilgoak, Errezilgoak eta Pariskoak tartean. Oñatiar askok ere egin zituzten.

GOIENKARIA

ZUBILLAGA-OÑATI ERREPIDEA

Bost hilabete inguru iraungo dute errepidea konpontzeko lanek

O.E.

Hilaren hasieran hasi dira Zubillagatik Belatxara gasolindegira parerainoko errepide zati konpontzen. Bi kilometro inguru dira guztira eta bost hilabeteko epea dute lanak amaitzeko. Aurrekontua da 743.000 euro.

Maiatzean onartu zuen Diputatuen Kontseiluak GI-2360 errepideko zati hau konpontzea. Abuztuaren hasi behar zituzten lanak, baina urrian hasi dituzte. Lanak egiteko errepidearen zati bat itxi egingo dute, tarteka. Semaforoak jarri dituzte, eta auto ilarak sortzen dira ordu batzuetan.



Errepideko alde bat itxi egiten dute tarteka eta auto ilarak sortzen dira.

IKASTAROA

Eskulanetarako izena eman daiteke

O.E.

Aurten ere Udalak eskulanen ikastaroak antolatu ditu eta urriaren 18a da azken eguna ikastaro hauetan izena emateko. Ikastaro bakoitzak ikasle kopuru zehatz bat hartuko du, kopurua mugatua da eta eskainitako plazak baino jende gehiago apuntatzen bada, zozketa egingo dute.

HAINBAT IKASTARO

Bost ikastaro antolatu dituzte aurten ere: hari eta puntu lanak egitekoa, pintura ikastaroa gaztetxoendako eta nagusiendako, zeramika ikastaroa, pintura deko-

LABUR

OZT lagunarteko bazkide kanpaina zabaldu du

Oñatiko Zuri-Gorri taldeak bazkide kanpaina zabaldu du. Athleticen lagunarteko kide egitea nahi duena Amurrio tabernara joan daiteke martitzenetan, 18:00etatik 19:00etara. Bazkide egiteko behar duen NAREN fotokopia, kontu korrontearen zenbakia eta 30 euro. Irailean sortu zen OZT eta 40 bazkide inguru dira.

Pintura lehiaketako lanak kultura etxean

Domekan Ageriko III. Pintura Lehiaketa egin zuten. Margo aurkeztu zituzten guztira eta denak ikusgai daude orain kultura etxeko erakusketan. Urriaren 23a arte egongo da erakusketak zabalik 18:30etik 20:30era.

16 urtetik beherako kategorian Javier Román irabazi zuen margo lehiaketa eta 16 urtetik gorakoetan berriz, Pedro Barriok.

MATRIKULA

Ikastaroak egiteko izena kultura etxean eman behar da. Nagusiendako 35 euro ordainduko dute matrikula eta gaztetxoek, 23 euro.



Amaia eta Iñigo Zabala

ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala *Optiko Optometrista*

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

Udazkeneko eskaintza!

- **Lente progresiboak** urratzearen kontrako tratamenduarekin **169€** -tik aurrera
- **Betaurrekoak** lente monofokalarekin **60€** -tik aurrera

• **Ikasleendako promozio berezia**

Armazoiak
35 € -tik aurrera



PRS:170/04

Asteazkenetan 22:15ean, **ZINEA**

16 MM: Euskal zinegileek eginiko film laburren saioa



URRIAK 19:

• **BELARRA** (10')

Koldo Almandoz

Sinopsia: Emakume bat dutxatik irten, jantzi eta, semea besoetan, baserri ondora atera da saskian dituen izara garbitu berriak eguzkitan zabalteko. Urrutira, gizon bat belarretan dabil. Umea saski batean eserita dago, eta, bat-batean, handik irten eta belarretan barrena doa...



AZAROAK 2:

• **BASURDEA** (14')

Ane Mitxelena

Sinopsia: Bi arrantzale xumek basurde bat topatuko dute perretxikotan dabiltzala. Ezusteko horren ondorioz, amesgaizto batean sartuko dira, eta oso nekez ihes egin ahal izango dute.



URRIAK 26:

• **ETXERA** (9')

Elena Sierra

Sinopsia: Iker izeneko gazte diabetiko batek gose-greba hasiko du, eta horrek kezka eragingo dio bere amari.



AZAROAK 9:

• **LONG PLAY** (23')

Oihan Vega

Sinopsia: Diska denda bateko saltzaileak, dendako diska batekin erlazio obsesibo bat mantentzen du.

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU





Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 Star" goreneko kalifikazioa pertsona nagusien babesean.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES